


Goibekokale
1996ko urria. 17zk.
ELGETAKO ALDIZKARIA

LUZIO ETA FAKUNDO: HAMARKADA BAT ELKARREKIN



F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.

Maderas Gallastegi, s.a.

MENDI UZTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta cruzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

PNVren jokabideak argituz.

Argitu beharrekoak:

Lehenengo puntuari dago-kionez, HBkook premiazkotzat jotzen genuen pilotalekuaren margo-keta. Gure salaketa Patxiren metodo autoritarioaren kontrakoa da.

Apirilaren 14an Patxik frontoia margotzeko erabakia hartzen du, kirol batzordea apirilaren 17an izatekoa zelarrik. Bitarteko egun horietan ez zuen inolako azalpenik eman, nahiz eta batzordeko kideekin egon. Hauek batzorde egunerarte ezer jakin ez arren astelehenean hasi ziren margotzen.

Bigarren puntuari dagokionez, zuek diozuenez erabakia 95eko uztailaren 25eko gobernu batzordean hartu zen. Memoria argituz esango dizuegu nola 95eko ekainaren 8an aurrekontuak onartzerakoan Patxik aldaketa bat zegoela aipatu zigula. Jaietako aurrekontuetatik 200.000 pta kendu eta txirrindulari taldeari emateko asmoa adierazi zuen. Orduan ere kirol eta jai batzordeak (biak HBren esku) kontutan izan gabe. Plenoko aktan argi jasotzen da gure desadostasuna, ez edukirekin baizik eta metodoarekin.

Gero, uzaileko 26ko gobernu batzordean dirulaguntzek gure baietza jaso zuten kirol taldeei dirulaguntzak gehitzekoaren aldekoak geraldako.

Bukatzeko, Maiatzaren 28ko hauteskundeetan 338 herritarren konfidantza jaso zenuten baina ez ahaztu 191 herritarrek HBri eman ziotela konfidantza. Horien ordezkariak errespetoa merezi dute udaletxean.

Elgetako HB

Txirrindulari elkarteari

Lehenengo eta behin esan, ni ez naizela Kepa Sakolegi. Eta bigarrenik ni ere, etxekoekin batera, OSO MINDUTA egon eta negar egindakoa naizela.

17 urte dihardut txirrindularitza munduan: 8 urte txirrindulari eta beste 9 urte zuzendari lane-tan.

Nik bi aldiz partehartu dut Elgetako kriteriumean: Lehenengo urtean jende ospetsuari (Loroño, etab.) omenaldia egin arren nere izena ez zen ezertarako ere aipatu herrian (pena da hurrengo egunean ezkutuan sobrea eskaintzea). Jaso nuen bakarra karrera baino lehen emandako adarkadak izan ziren; hurrengo urtean beste adarkadarik ez jasotzearren alde egin nuen herri-rik karrera egunean.

Hirugarren urtean ondo nenbilela ikusita partehartzeko esatera etorri zineten. Nik partehartzeko gogoia nuela erakutsi nizuen eta zuekin hitz batzuk edukitzea gustatuko litzaidakeela gaineratu. Zuek baietza eman eta 15 urte pasa arren oraindik itxaroten gogo.

Bide batez, 15 urte eta gero Kepa Sakolegiri nire eskerrona erakutsi nahi diot zuek egin ez duzue-na egin baitu. Zuek oraindik ere politika berean jarraitzen duzue (bestela galdetu Egoitz eta Oskarri nik galdetu diedan moduan), zeren eta beste herrietan, txirrindulari bakarra izan arren, beste aukera batzuen bidez errekonozimentu publikoa jasotzen dute. Elgetan ordea, errekonozimentuak ezkutuan egi-ten dira eta diru sobrea emanez tristeza bada ere.


Bukatzeko, handikeriak al-

de batera laga eta benetako afizioa baduzue tratu pertsonala izan txirrindulariekin eta ez ibili ezkutuan.

Anjel Ibarluzea

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inizialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobrea *Goibekokale* ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.



Estampaciones

Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Bizi ala iraun? Bizirik iraun

Maiz esan izan da beldurgarriena ez dela heriotza, baizik eta hiltzea. Zorritzarrez, gizarte honetan arnasa hartzen duen hildako asko dago. Egunerokotasunean jarraitzea behartuak baleude bezala...

Egia da inork ez zigula jaiotza orduan gure lehen nigar haiek ekiditeko aukerarik eskeini. Bagenekien horrez gain, zer zetorkigun gainera, eta horrengatik egin genuen nigar hain ozenki.

Ez dut ukatuko gure sortze unetik gaur egunera guztiok izan dugunik makina bat gorabehera (askotan gora baino gehiago behera). Damutzeko, lotsatzeko edo haserretzeko arrazoi anitz dugu guztiok.

Eta hala ere jendea kaleetan aurrera eta atzera ikusten dut estresatu aurpegiarekin, mundua ordubete barru amaituko balitz bezala. Edo egunkarietako horoskopokoak irakurriz, beren destina edozein kazetariren eskuetan dagoela sinistuta. Edo futbol partiduei so, talde batek irabazi edo galdu, beren bizimodu aldatuko bailitzan.

Bizi indarrak gabeko jendea da, ilusioa zer den jada ahaztua duena (edo okerragoa dena, inoiz ikasi ez duena). Egunerokotasunari jarraiki, arriskatzeko adorerik gabe, bizitzaren aitzakian, iraun besterik egiten ez duen jendea. Hiltzea baino, bizia galtzea nahiago duena.

Egia da bai, inork irakurtzen ez dituen liburu zoragarriez beterik dagoela bizitza. Eta ez ahaztu hobe dela damutuko zarenaren beldurrik gabe gauzak egitea, egin ezaren damua izatea baino.

Mundua, berau konkistatzeko jaiotzen denarena da, eta ez konkista dezakeela uste duenarena. Arteak mugak ditu, baina irudimenak ez. Sarasuatarrek dioten bezala: "Bizirik irautea, hori da bizitza".

Ainhoa Agirreazaldegia



Kontsumo Ekologikoa

Honezkerok denok dakigun gauza da, baina noizean behin errebaso txiki bat ematea ondo datorkigu. Birziklapena bultzatu egin behar dugu.

"Erabili ondoren, bota" filosofia baztertu egin behar da. Gauzak, behin eta berriro erabiltzeko ohitura hartu behar dugu.

Europako hainbat lekutan, kristala, papera, latak eta abar ezezik, etxeetako zama organikoak, (janari hondarrak batez ere) beste zaborretatik apartatu, eta usteltzen laga ondoren, abonua gisa erabiltzen dituzte ortuetan.

Badakit, industria, nekazaritza eta ekonomia arlo guztietan gauzak erabat aldatu behar direla, baina, guk geuk egin dezakegun gauzetan jar dezagun ahalegin eta indar guztia. Hona hemen "Aizu" aldizkaritik ateratako bost arau edo kontseilu.

- Kristala, papera, latak eta abar birziklatu, horretarako ontziak ongi erabiliz.


- Ez erosi "P.V.C."-zko ontzian saltzen den ezer, zeure osasunerako ere kaltegarria izan daiteke eta. Ontzi birziklagarriak erabili (eta berrerabili).

- Erabili beti poltsa bera (telazkoa edo) erostetak egiteko. Plastikozko poltsak hondakin kaltegarriena dira.

- Nekazaritza ekologikoa erabiliz, landatu diren barazkiak, kontsumitu.

- Elikagai freskoak kontsumitu, garraioen eta kontserbanteen erabilera gutxitzen lagunduko duzu.

Mª Elena Eztenaga



GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Laguntza berezia:** Ozkarbi elkarte. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Saratsua eta Iker Irazabal. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Argazkien errebeldia:** Txuri-Beltz argazkizale taldea. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aitor Ubera. **Kolaboratzaileak:** Mª Elena Eztenaga, Ainhoa Agirreazaldegia eta Jon Arantzeta. **Administrazioa:** Esti Retolatza eta Susana Jimenez. **Publizistak:** Onditz Villa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 600 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

TXARO ARTEAGA: "EMAKUMEAK AURRERANTZA DOAZ ETA ALDAKETAREN AURREAN ESKAKIZUNAK DITU"

-Gizonak egoera berria ez du aztertu Txaro Arteagaren ustez. Mugak jarriko dizkio bere izateari gizarte berrian-

Urriaren 17an Txaro Arteaga Emakundeko arduradun nagusia izan zen Elgetan. 30 pertsona inguru bildu ziren emakumearen gaur egungo egoeraz hitzegin eta eztabaidatzeko asmoz. Ondorio nagusienetakoa emakumeari kanpoan lan egiteko aukerak errazteko moduak aurkitu behar zirela izan zen. Elgetan emakumeen talde bat eratzea ere proposatu zen, eztabaida eta ekintza desberdinen ekimenerako.

"Ezin daiteke emakumeaz hitzegin gizonak kontutan hartu gabe, eta ezin dugu gizartea eraldatu beraiek parte hartzen ez badute hobekuntza horretan" horrela hasi zuen bere hitzaldia Txaro Arteagak. Gizartearen aldaketa geroz eta nabariagoa da, emakumea lan munduan sartzen hasi denetik. Egoera berri honek, gizarteko hainbat sektore moldatuko direla esan nahiko du, baina hemendik aurrera gerta daitekeena iraultza baten parekoa izango zela gehitu zuen Txaro Arteagak.

Emakumeak bi paper betetzen jarraitzen du, etxean eta kanpoko lanean. Gizartea aurreko egoerara dago moldaturik oraindik, hau da, eskola orduak, zerbitzuen ordutegiak... emakumearen beharra eskatzen dute funtzio horiek betetzeko. Guzti honek Txaro Arteagaren ustez, gehiago lotzen du emakumea etxera. Ondorioz,



Emakundek laguntzak eskaintzen ditu talde berriak eratzean.

kanpoan lan egiteko aukerak desagertu egiten dira neurri handian. Era berean, menpekotasun ekonomiko honek ekartzen dituen ondorioek daude. Honen inguruan zera gehitu zuen, gizarte zerbitzuak beharrezkoak direla: dohaineko eskolak haur txikientzat, jantoki gehiago umeentzat, pertsona nagusiez arduratuko diren erakundeak...

Iraultza hain zuzen ere horretan omen dago, emakumea lanean hasten denean etxetik kanpora lan merkatura gehiago mugituko da eta ondorioz lan filosofia berri baten aurreran egongo gara, Txaro Arteagaren ustez.

Emakume taldea Elgetarako

Herri bakoitzean emakumeak izan ditzaketen arazo edo gaiez hitzegiteko talde bat sortzea proposatu zen. Txaro Arteagak aipatu zuenez, herri askok dituzte horrelako taldeak eta eredugarriena inguruan Ermuakoa zela gehitu zuen. Talde hauek ikastaroak antolatzeaz gain herriko emakumearen egoera ezagutzen dute eta beharrei erantzuna emateko prestatzen dira. Emakundek bere aldetik, plan hauei laguntza eskaintzen die, aurrekontuaren %20 emanez eta ideiak zein azpiegitura teknikoan proposamenak eginez.



IRAMA
Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatua: 247262 tel:
789057-768025



Andoni Bolinaga
METALAK
FS7 18
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

AUZO LANEAN KONPONTZEA ERABAKI ZEN SALBADORKO ERMITA

-20 lagun inguru Salbadorreko ermita konpontzen ari diren bitartean, San Blasekoa eta Uriarteko Amarena egoera negargarrian daude beste batzuen artean-

1740an eraikitako baselizaren azken berriztapena 1978an egin zen. 18 urte ondoren, teilak aldatu dituzte eta barneko zein kanpoko itxura berriztu dute. Elgetak hondare zabala du ermitetan baina desagertu ez direnak, erortzeko arriskua dute. Horien artean daude San Blas ermita eta XVI. mendeko Uriarteko Amarena, Gipuzkoa mailan ederrena izan litekeena.

Hainbat lagun auzolanean ari dira, asteburuetako orduetan. Bakoitzak bere poltxikotik dirua ipini du materiala erosteko, eta honekin batera eros ezin daitekeen borondate ona. Dena den tartean afari baten promesa ere ba omen dago. Garrantzitsuena, herri ekin-tza hauei esker, Salbador beste urte

askotan berean ikusteko aukera ematen zaigula.

Teilatua aldatzeaz gain, burnizko atea eta leihoak ere berriztu eta margotu dituzte eta egurrak ere zitzaren aurkako tratamendua jaso du. Barnea ere zurituta eta garbituta dago.

Ermitak, gure hondarea

Toki aberatsa da ikuspuntu horretatik Elgeta. Auzo eta bazter askotan daude ermitak edo hauen aztarnak. Juan San Martinek bere liburuan dioenez, XIV. mendeko aztarnategi garrantzitsua da Uriarteko Amaren ermita. Garai hartako gotorleku eta otoitz leku zen eta Uberatik Elgetarako herri bidea bertatik pasatzen zenez gelditzeko aproposa. Datu ugari ditu bilduta

"Elgueta con Anguiozar y Ubera" deitutako liburuan. Gipuzkoa mailan dagoen ederrera bada ere, desagertu egingo da guztiz konponbiderik aurkitzen ez bazaio, eta zori berdina izan lezake Arantzeta auzoan dagoen San Blase ermitak ere.



Dirua beraiek ipini dute, materialak ordaintzeko.

Gipuzkoako Pelota federazioaren hauteskundeak

Elgetan bildu ziren urriaren 21ean Gipuzkoako federazioko hauteskundera aurkeztuko den talde berria Amenabar buru dutela. Inguruko herri eta bailaretako pelotako ordezkariak hurbildu ziren.

Aurkeztutako programaren helburua, klub eta Federazioaren arteko harremanak estutzean zegoen. Bestetik Araba eta Bizkaiako Federazioak eredugarriak zirela aipatu zen, Gipuzkoakoa momentu honetan ahulena baita. Aurkezle lanetan aritu zen Josean Unsainek antolaketa eta koordinazioa behar zela azpimarratu zuen.

Eskolako kirolean lan egitea ere berebiziko zela aipatu zen, harrobia hortik irtengo delako. Juan Luis Uberak, Elgetako ordezkaria, inter-klub-a ondo antolatzeke eskatu zuen. Kategoria eta sail gehiago antolatu behar direla esan zuen denek izan dezaten denboraldi osoan zehar pelotan jarduteko aukera, ez orain gertatzen den bezala, batzuk bi hilabetetan bukatzen dute denboraldia.

Dantza Ikastaroa

"Herria dantzan jarriko dugu", dantza ikastaroa antolatu da. Salsa, Saloiko dantzak, Jazz eta Txa-txa-txa. Zapatutan egingo da ikastaroa egurdi aldera. 14 urtetik gorakoentzako izango da. Izena ematerakoan zein dantza ikasi nahi den zehaztu beharko da. Izen ematea Gaztetxean, Polikiroldegian edo Haizea Tabernan, azaroaren 3rako.



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.

Tfnoak: 797815/771042 Faxa: 771476 ARRASATE.

BILTEGI
DENDA

*Zugandik
gertu behar
duzun beste*

Salbador 24 Tel: 768206

Eskulanak

Eskulan ikastaroak hasi dira ikasturtearekin batera. Betiko egun eta ordutegiarekin jarraituko dute: eguaztenetan arratsaldez ordu bietatik lauretara. Irakaslea Maria Elena da eta parte hartzaileek beste egunetan ere bertan lanok burutzeko aukera edukiko dute.

Dantza Ikastaroak

Dantza ikastaroak eguenean eta zapatutan izango dira Amaia Agirrek zuzenduko dituelarik eta dagoeneko hasita daude (urriak 24an hasi ziran), baina gogoz dagoenak aukera dauka oraindik Liburutegian izena eman eta ondoen datorkion egunean hasiteko.

Jareikotxora ura ipintzen dihardute

Asentzio inguruan ibili zaretenok ikusiko zenituzten dagoeneko bertan burutzen ari diren lanak. Parteitti inguruan dagoen ur depositotik Jareikotxo baserrira ura eramateko tuberiak ipintzen dihardute, lanok urriaren bukaerarako amaitzekotan direlarik.

Jareikotxo baserriak duen ur falta arazoa larria izan da betidanik. Urkuluko urak Angiozar eta Elgetarako ekarri zirenean arazo horren irtenbidea gertuago ikusi zen, eta berehala eskatu zen ur-sarea behar zen leku guztietara zabaltzea. Egiten diharduten lan honek gerora jarraipidea eduki lezake Mainddaora, hala eskatuz gero.

Mendiko Nekazaritza erakundeak eta Bergarako Udalak finantziatu dituzte lanok 7,5 miloi kostatu direlarik.

ELURTEETARAKO PLAN BERRIA

Pasa den urriaren zortzian Angiozar Bailarako Batzarrek egindako bileran aipatu zenez Bergarako Udalak elurteetan sortzen diren komunikazio arazoei aurre egiteko plan berria indarrean jartzeko asmoa du aurtengo negutik aurrera.

Plan honen arabera Angiozar Bailarako auzune bakoitzean arduradun bat egongo litzateke traktorearekin, eta hari egokitutako pala-kuña batekin, bideak garbitzeko elurte egunetan. Lan horrek sortuko litzuzkeen gastuak Udalak ordainduko ditu. Datorren azaroaren bostean,

gaueko bederatzietan egingo den bileran zehaztuko da antolaketa.

Orain arte bakoitzak ahal zuen irtenbidea eman izan dio elurteetan sortu ohi den komunikazio arazoari: norberak bideak garbitu, oinez joan lanera, arazo larrietan Ertzaintzari deitu... orain proposatzen den antolaketak seguruenik ez ditu arazo guztiak konponduko, baina neurri baten gutxitu bai. Falta dena zera da, ia Diputazioa ere animatzen den elurra egin eta egun berean Bergaratik Asentziara eta Kanpazartik Elagetarako bidea garbitzera.

ANGIOZARKO ESKOLAN IRAKASLE ALDAKETA

Hiru urtetan zehar andereino laguntzaile izan den Marian Hernandezek aurten lantoki berria izango du Bergarako San Martin Agirre eskolan eta, bere ordezkari dena Begoña Zabaleta bergararra izango da.

Begoñak batez ere ingelesko klaseen ardura izango du eta asteko egun guztietan, jornda osoz, izango da eskolan Mito Vega maixuarekin batera.

Angiozarko eskolan hamahiru ikasle daude, hiru

urtetik hasi eta bederatzietan bitartekoak, hau da, laugarren maiatararte, edade horretako beste sei Angiozartik kanpoko eskolara joaten direlarik.

Indarrean sartu den Irakaskuntzako Erreformarekin Angiozarko Eskola Publikoa Lehen Hezkuntzako (Primariako) eskolatzat onartua izan da, eta badirudi seigarren mailararte luzatuko dela bertan egoteko aukera, nahiz eta horretarako behar bada beste irakasleren bat behar oraingoz gain.

Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

Zure publizitatea hemen
azaltzea nahi baduzu deitu
telefono honetara:


78.90.85

LEHIAKETA

Oraingoan bai, oraingoan asmatu dute zorioneko argazkia zein den. Guretzat oso preziatua dela genioen aurreko alean eta ikus dezakezuen horrelaxe da, *Goibekokaleko* argazki makina da iruditzen duzuen. Preziatua dugu bai makina eta bai lehiaketan irabazleak egotea. Oraingoan **Iñaki Egizabal Oianguren**ek asmatu du eta harbeza gure zorionik beroena. Besteok badakizue, segi idazten. Afariak emateko irrikitan gaituzue eta.

Ez dugu uste oso zaila zenik, askotan testuan egoten dira pistak nahiz eta jende askok irakurri ere egin ez.

Oraingoan zer? Oraingoan objektuak eta leku izenak alde batera utzi eta "izar" hau zein den asmatu behar duzue, ez da nekeza baina, afariak ematea nahi dugunez munduan ezaguna dela gaineratuko dizuegu. **ZORTE ON!**




Izena eta abizena: _____ ✂

Erantzuna: _____

Bizilekua eta telefonoa: _____

KOMIKIA




Hememendik hamar urtera zelakua izango da Elgeta?



Pentsatzen dot gero ta jende gehixau eta industria gehixau etorriko diala, hori herrixantzat hobeto izango da. Bariantia eitteko daon proiektua ez dakit ondo dagon, asunto hori ikusi eta ondo pentsau bihadala pentzatzen dot, herritxik kotxe gutxiau pasauko dian arren naturiai kalte eiñgo dotzat eta.



Espero dot haundi-xaua izatia. Pentzatzen dot etxe eta fabrika gehixau eiñgo dittuela. Etortzen dian fabrikek espero dot herri-kuei lana emotia, lehenengo lana bihada ta gero etxiak eitiia dakezela. Neretako bariantia be eiñgo dabe, hola herritxik automobil gutxiau pasauko dia.



Neri gustauko jatan oiñ daon moduan jarraitzia. Nere ustetan daozen fabri-kekin nahikua da, eta ez dot uste gehixau etorriko diazen-ik. Badakit daola proiekt-on bat bariantia eittiai buruz, aittatzekua da, piszinak eta be eitteko ziala, baina momentuz ez dittuela eiñ.



Etxe gehixau eitten badittue jende asko etorriko da; hori alde batetik ona izango da, baina beste alde-tik ez da egongo oiñ daon besteko trankilidadia. Bariantia ei-tteko proiektua aurrera eruaten bada, behintzat bentajia izango da herritik hainbeste kamioi ez litzakie pasauko eta.



Esandako guztien erdixak eitten badia be ondo egongo da. Eiñ dan lekuan egongo da eta ez dan eitten lekuan bapez. Ni neu obrak eittian aldekoa naiz. Neretzako gasoliñeran bat eittia be ondo egongo zan. Eitten dian gauza guztiak danendako onak izango dian batek daki baina eiñ-dakua eiñda behintzat.



Negoziua dauka-gun jendiantzako gero ta jende gehixau geruau ta ho-beto izango da. Bariantiak herrixan itxuria eskastuko dau, egokixena herrixan es-tetikia ez aldatzia izango lit-zake. Elgeta oin daon mo-duan ondo dago beste erara ez litzake bardin geratuko. Industria etortziak zona ber-de asko kenduko leuke.

**IBAIBA-
RRIAGA**
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

GRUPU
IFA

Produktorik onenak, prezio onenean

Tel: 76 80 98.

ALDI

M^a Karmen
Lenzeria

Lenzeria eta kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.
Tel: 789040

| | |
|---|---|
| ♈ | Aries: Kontrolau zure nerbixuak, burua apurtu baino lenhen. |
| ♉ | Taurus: Asegurau belarrixa, zuk pentzatzen dozun baiño gehixau balio dau ez! |
| ♊ | Geminis: Gauzak trankil hartu, askoz be obeto juango jatzu eta. |
| ♋ | Cancer: Oingo hilian ez eñ lanik, kaltia bakarrik ekarriko dotsu eta. |
| ♌ | Leo: Ez galdu itxaropena gutxien usten dugunian sorpresa handi bat dok/n da. |
| ♍ | Virgo: Animo gutxi falta dok/n ta hire kalbarixua amaitzeko. |
| ♎ | Libra: Siestia eitteko ohittura ez galdu, ondo etorriko jakok hire gorputzari. |
| ♏ | Escorpio: Hartu folio bat eta demostrau zenbat eta zer idazteko kapaza zan. |
| ♐ | Sagitaris: Poltzikoan daukan/daukanan loterixia kadukau baiño lehen begiratu ondo etorriko jatak/n ta. |
| ♑ | Capricornius: Zure bihotza beste lan eitten baziñuan nahikua diru eukiko ziñuke. |
| ♒ | Acuarius: Segi ta segi, ez galdu pasientzia euria dok/n eta. |
| ♓ | Piscis: Espero bako erregalua jasoko dok, hori bai sorpresa eh... |

Arrate Ayastuy Okiña

Zenbat urte panaderixan?
Orain hamasortzi urtetik, 1978tik.

Ordenadoreik badaukazu?
Etxian ez, baina panaderixan badago bat haundixa.

Gustatzen jatzu zure lana? Bai.


Telebista ala irratixa?
Telebista.

Notizia askona enteratzen al za panaderixan? Bueno, batzutan bai, baina ni nere biharra eitten egoten nahi.

Programarik gustokoena? Anaren programa.

Ze ordutan jaikitzen zate?
Gutxigora behera zazpirak laurden gutxiagotan.

Zenbat kale dare Elgetan? Bat, bi, hiru,... bost edo sei, ez?



Zer eitten dozu arratsaldetan?
Etxeko lanak.

Zenbat ogi sartzen dia labakada baten? Ezin da jakin seguru, ogia nola irtetzen den arabera, loditzen den ala ez,...

Zer pentsatzen jatzu Elgetako Gasifikazioa?
Ondo.

Zenbat ogi mota saltzen dozu?
Boiluak, barrak eta baltzak.

Kanpoko jentia etortzen da ogixa erostera?
Bai.

Zein ogi da zure gogokuena?
Txuri txuritxue.

Zergaittik enkargau biada ogixa domeketan?
Zergaittik lehen kanpoko jentea etortzen zan ogi bila eta herriko jentia ogi barik geratzen zan.

Zer gehixau saltzen dozue?
Pastak eta gaileta batzuk.

Zer armosau dozu gaur goizian? Kafetesnia.

Orduan errieta batzuk euki nitxun eta horregaitxik jarri neban.

Ze koloretakuak dia zure sukaldeko baldosak? Kolore indefinitu bat da , montaje bat.

Berezitasuna:
Buztana. Pintxo gozoak, otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel:768284

OSTATU
JATETXEA

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.
Karta.



Hementxe dago bakoitza bere "erramintxara" helduta. 10 urte plazaz-plaza.

LUZIO UBERA ETA FAKUNDO SARASKETA. ELGETAK DUEN BIKOTE EZAGUNENA

-Bizitza eta bihotza panderora eta soinura lehendik lotuta badute ere, hamar urte dabilta elkarrekin jotzen. Bilbon egingo diete homenaldia abenduaren 14an -

Luzio 88 urte beteko ditu Santa Luzia egunean eta Fakundok 74 ditu. Erromeriatik erromeriara Fakundoren autoan plazak eta animoak alaitzen. Panderoa eta soinuari helduta eta trikitixak ematen dien erritmoari lotuta dute bizitza. Luzio 88 galdara bati eraginez ikasi zuen panderoa jotzen eta Fakundok eskuartean eraginez. Sasoi onean egonda erretiratzeko aitzakirik ezin dute bilatu.

- Noiz hasi zineten mundu honetan? Eta bikote bezala?

Fakundo: Bikote bezala 10 urte gabilta elkarrekin. Aurretik Bixente eta Goiokin ibili nintzen.

Luzio: Ni anaiakin hasi

nintzen. Harek, soinua jotzen zuen. 14 urte inguru nituen, panderoa eskuartean lehenengoz izan nuenean.

- Erromerixa askotan jotzen al zenuten?

F: Ni gutxi ibili naiz. Gaztetan soinua jotzen nuen, baina soldaduzka ondoren utzi nion. 31 urte beranduago, Eskoriatzako bati erosi nion soinua eta ordutik hona elkarrekin gabilta.

L: 14 urte inguru nituen Uberako San Paulon anaiarekin jotzen hasi nintzenean. Bi urtetan zehar plaza hartuta izan genuen. Elorriko eta Bergaratik jende asko etortzen zitzaigun ikustera. Elgetako alkateak hori ikusi zuenean, herrira ekarri nahi izan gintuen,

plaza dohan emanaz.

- Erromerixa galdu egin dela uste al duzue?

F: Lehengo erromerixarik ez dago. Soinu-joleak berriz ez dira galdu, ugaritu baino. Orain beste dantza batzuk daude modan eta gazteek horiek dituzte gogoko. Herriko jai batzuk eta txapelketa batzuk kenduta, galdu egin dela esan daiteke.

- Nola sartu zitzaizuen afizioa?

L: Anaia Gasteizen zegoela etxera karta bidali zuen. Aitari soinu bat erosi behar zuela esaten zion, 50 ptaren truke. Ni bitartean ganauak zaintzen nengoen eta

VIVO
Janari
denda

Tel: 76 81 31
M^a Jesus
Arrazola

Larunbata eta igandetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

TABERNA
BARRA DE ROKUA
TATE XEAL

tel:768273

ERROMERIXA
HARATEGIA
AST

S. R. 6
Tel: 768168

hantxe hasi nintzen galdara zahar bati kolpeka. Denbora gutxian neurria hartu nion.

- Ze gomendio emango zenioke hasi berri den trikitilari bati?

F: Plazara irtetzeko, ez lo-tatzeko. Bestela jendeak utzi egiten dio joteari. Jende artean mugitza eta ibiltzea ezinbestekoa da.

- Lehengo trikitilariak asko irabazten al zuten?

L: Lehen, kantu bakoitzeko txakur txiki bat (5 zentimu) kobratzen genuen. Guk kantua bukatu ondoren beste batek txapela pasatzen zuen diru pixkat jasotzeko. 5 pezeta irabazteko erromerixa haundia izan behar zen. Beranduago, txakur haundi batera igo genuen prezioa (10 zentimu), jendea asko haserretu bazen ere, beti deitzen gintuzten anaia eta bioi.

- Kepa Junkera, Tapia eta Leturia... Zein iritzi duzue gaurko trikitilari buruz?

F: Horiak artistak dira. Gure garaiko musikaririk ez dute egiten baina soinu txikiari soinu



31 urte egon nintzen soinua jotzen. Goiokin ere jo nuen eta ondoren Luziokin elkartu nintzen.

Fakundo Sarasketa: Gaur egungo trikitilariak, nahiz eta gure garaiko musika ez jo, artistak dira.

oso onak ateratzen dizkie. Artistak dira.

- Zein plazatan ibiltzen zireneten?

L: Anaiakin Markinan, Arrasaten Santamasetan, Eibarrera

Luzio Ubera: Lehenago plazak zozketatu egiten ziren eta abesti bakoitzeko kobratzen genuen.

Hasieran txakur txiki bat eta gero prezioa igo genuen txakur haundi batera.

Askok haserretu zen jendea baina beti deitzen gintuzten.

san Juanetan... Lehen plazak subastan egoten ziren hainbat lekutan. Eibarren lekurik onena beti guk izaten genuen, gure amak amastade haundia zuelako bertako alkatearekin, esnea eta beste gauza batzuk bidaltzen zizkiolako.

- Elgetako trikitilari eskolari buruz ze iritzi duzue?

F: Neri ondo iruditzen zait. erraztasun haundiak daude eta hori oso positiboa da. Ikusten dudana arazo bakarra ikasi eta gero utzi egiten dutela da eta hori ez gertatzeko plazara irten behar da. Lagunekin, afarrietan, txapelketetan soinua jo behar da ohitzen joateko.

Luziok eta biok bakarrik ikasi genuen eta eskola hauek asko erakusten dute.


- Jubilatuko al zarete inoiz?

L: Jubilazioa derrigorrez hartu beharko dugu, urteetan aurrera goaz eta.


F: Bateko eta besteko jubilatuekin ibiltzen gara, urrin joan gabe ibiltzen gara. Orain nik eramaten dut autoa, baina, gauez eta ibiltzeko geroz eta okerrago gaude. Baina inguruan ibiltzeko konpontzen gara.

- Gogoratzen duzuen egun berezietako bat?

F: Bargarako jubilatuek Gorlan bazkari bat egin zuten. Garai hartan bazegoen apaiz bat Don Miguel izenekoa urtero etortzen zena Donostiatik. Meza Elosun eman ondoren, hamarretakoa egin genuen eta gero hango elkarte baten bazkaldu genuen. Eguna han pasatu eta etxerantz gentozela, Bergarako gasolindegian zegoen tabernan gelditu ginen. Han ere koadrila batekin topo egin genuen eta gaue-rarte han gelditu ginen jotzen.



14 urtekin hasi zen erromerietan jotzen. Anaia eta biok berehala egin ziren ezagunak inguretan.



Jesús Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Aretkale 3.
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELATAN**

HAIZEA
TABERNA

giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256

SUKALDARITZAKO IKASTARO "TRINKOA"

**-Hiru hilabetez arituko da kurtso bakoitza hainbat jaki gozo eginez eta janez
Nerea Arantzetaren eskutik-**

Nerea Arantzeta ingeleseko irakaslea izateaz gain, guztiok dakigu aparteko sukaldaria dela. Hilabete batzuetarako sukalderako pintxe batzuk kontratatu ditu erroskilak, donutsak eta bestelako gauzak egin asmoz. Haurrek erarmaten dituzte osagaiak, Nereak berriz tresneria eta munduko pazientzia guztia. Lehen hiru hilabetetan 3. mailakoak izango dira inguruetako bazter guztiak zikinduko dituztenak. Gela guztia hankaz gora ipini ondoren donutsak egin zituzten.

Jarraian erabili beharreko osagaiak:

- * 2 arrautza.
- * 650gr irin.
- * 250gr azukre.
- * 50gr gurin.
- * 4 koilara txiki legami.
- * Baso bat esne.
- * Olio.



Pintxe hauek ez dakite ondo zertan dabiltzan.

Lehenik arrautzak irabiatu eta azukrearekin batera nahastu. Urtutako gurina botatzen zaio ondoren. Ongi nahastuta daudenean, irina eta legamia elkarrekin bota piskanaka. Honekin batera esnea ere apurka gehitzen joango gara. Orea eginik dago eta bakarrik mahaian lantzea falta da.

Orea prest dagoenean, zentimetroko lodiera duten donuts forma emango diogu zati bakoitzari. Erdian zuloa egitea ez ahaztu bestela oliotan sartzen ditugunean apurtu egingo batira.

Olio bero dagoenean, gutxinaka sartzen joan. Berehala egingo dira eta sartu baino haundiagoak aterako. Gogoratu olioak oso bero egon behar duela apurtu ez daitezen.

Amaitzeko platerean ipintzen joango gara eta gaitetik azukrea botako diogu. Jatea besterik ez zaigu gelditzen. Dastatu ditugu... gozoak daude benetan.

Lurra, jantziak... irinez bete ziren. Baina denak balio du ondo pasatu, ikasi eta alboko gelakoei enbidia galanta emateko. Dena den lanik ez badute egiten, badakite ondo Nereak zer esaten duen "jateko, lan egin behar da".



Elgetako plazan salgai ipintzeko asmoa dute.

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara. Tel: 768078


EROSLE

M. Asun Agirre
Salbador 26. Tel: 768190

**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

MAKAILOAREKIN BETETAKO PIPERRAK

Sukaldaria: Jose Antonio Oianguren
(Patxi taberna)




NOLA PRESTATU:

- Kipula ondo bigundu gurin eta oliotan, oso poliki eta denbora luzean.
- Kipula bigundutakoan, irina nahastu eta gorritzean esnea poliki-poliki botatzen joan. Gero, gatza kendutako makailoa zati txikitan saltsara bota eta ondo nahastu.
- Bexamela ondo eginda dagoenean, hoztera atera. Ondoren piperrak betetzeko da bexamela.
- Piperrak betetakoan, arraultzatik pasatu eta zartagian buelta pare bat emadakoan atera.
- Zartaginetik kazola batera pasatuko ditugu. Gainetik aurrez prestatutako saltsa botako diegu.
- Su bajaran edukiko ditugu puntuan egon arte.

SAL TSA PRESTATZEKO: Kipula oliotan gorritzen hasi. Ondoren beste barazki guztiak bota. Dena gorritutakoan, ardo zuri fina bota eta jarraian haragi salda gehitu. Ondo egindakoan dena birrintu eta iriztontzitik pasatu.

OSAGAI AK:

- Piperrendako:
- kipula
 - berakatza
 - olioa 0,4º
 - piper gorriak
 - irina
 - gurina
 - esnea
 - makailoa
- Saltsarendako:
- barazkiak: kipula, berakatza eta azenarioa
 - haragi salda
 - ardo zuri fina



GOMENDIOA:

- Kipula ondo gorritzea komeni da piperrak eta saltsa puntuan egoteko.
- Janari honekin batera edateko ardo gorria izango litzateke egokiena, Cigales ingurukoa.

Kartaka jolasteko giro egokia

Tel: 768093

Kopa bat

Patxi Taberna

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

Trokela eta estanpazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

J.L. ARANTZETA: "ESKOPETEROEN ERRUZ BESTE KAZARI GUZTIOK FAMA TXARRA DUGU "

Ehizarako garaia hasi da eta Elgetan beti egon den bezala izugarriko afizioa guk ere lekutxo bat egin diogo gure aldizkarian. Ehi-zari buruz gehiago jakiteko asmo-arekin Juan Luis Arantzetarekin egon gara bera gaztetatik sartua baitago mundu honetan. Bere ustez "lizentzia ateratzeko egiten den azterketa beharrezkoa da".

- Nola eta nohiz hasi zinen ehizatzen ?

Mutikotan hasi nintzen. Garai hartan hamasei urtetararte ezin zitekeen lizentziarik atera baina ni aitarekin eta anaiarekin joaten nintzen, nahiz eta eskopetarik erabili ez. Hamasei urte bete nituenean lizentzia eta arma baimena atera nituen eta ordutik eskopetarekin ibili nahiz.

- Zer behar da ehiztari izateko ?

Afizioa. Afizioa besterik ez.

- Zein iritzi daukazu lizentzia ateratzeko egiten den azterketari buruz ?

Ondo dagoela deritzot. Beharrezkoa dela pentsatzen dut. Ehizan aritzeko zenbait gauza jakitea ezinbestekoa da.



J.L. Arantzeta juez izan zeneko batean.

- Ehiztariak legeak betetzen al ditu ?

Gehienek betetzen dituztela uste dut. Beti egoten da banakaren bat betetzen ez dituen, baina normalean betetzen direla uste dut.

- Ehizan egitea garestia al da ?

Bai. Lehenik eta behin lizentzia behar da - Euskadirako bakarrik aterata merkeagoa da -, seguroa, arma baimena, eskopetarik ez baduzu eskopeta (kontutan hartu behar da eskopeta on batek,

superpusta eta guzti, 75.000 pezetako balioa izan dezakeela) eta guzti hauetaz gain, kartutxoak, bidaiak etab.

- Aurten postu batzuk 500.000 pezetatik gora ordaindu dira. Zifra desproporzionatua ez al da ?

Nik 500.000 pezeta ordaindu baino lehen nahiago dut 100.000 pezeta ordaindu eta Toledora joatea; behin Toledon " ojeo" bat kontratatu eta hemen baino uso eta tiro gehiago botatzeko parada izango

Ekologisten artean ere ehiztariekin bezala gertatzen da. Batzuk ekologistak dira eta beste batzuk aldiz izena besterik ez dute.

zeleta jatetxea
tel:768151

gustora sentituko zara.

ELKORO TORLOJU LANTEGIA
DEKOLETAIA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

baitut. 500.000 pezeta ordaindu ezkeru egunero joan behar da eta haizearen arabera egun batzutan usorik pasatu ere ez da egingo.

- Elgetan ehizarako afizioa eten egin dela uste al duzu ?

Beno, gazte batzuk aritzen dira.

- Elgetatik nora joaten zarete ehizatza ?


Galeper garaia denean Burgozera joaten gara eta bestela hemem inguruan ibiltzen gara oilagorretan. Beste batzuk Soria eta Salamankara ere joaten dira han baitute kotoa.

- Zeintzu animalia ehizatzen duzue gehien ?

Gehienbat oilagorra ehizatzen da. Batzutan uso pasea ere izaten da. Horretaz gain, basurdea eta batzuk azeriak ere ehizatzen dituzte.

- Konta iezaguzuz ehiztari baten egun bat ?

Etxe inguruan bada, eguna argitu orduko basora joaten gara txakurrekin oilagor bila. Nik ez ditut ordu asko egiten zortzietara-



Basurde hau Elgeta inguruan ibiliko balitz ez luke bizitzeko aukera handirik izango.

ko joaten banaiz hamabietarako etxean egoten bainaiz.

- Lehiaketetan parte hartzen al duzu ?

Orain ez. Lehen parte hartzen nuen baina aspalditxoan ez nahiz lehiaketa batetara joan.

- Ehiza kirola al da ?

Nik behintzat kirol bezala hartzen dut.

- Zein garaitan da posible ehizatzea ?

" Media beda " deritzon garaia abuztu erdialdean hasten da eta irailaren erdialdean amaitu. Garai honetan galeperra, tortolia eta usoa ehizatzen dira. Irailaren azken aldera usoa ehizatzen da baina postu fijoetan bakarrik. Urritik urtarrilera berriz, bste animalia guztiak ehiza daitezke.

- Ehiza asko aldatu al da azken urte hauetan ?

Ez da asko aldatu. Ehizara joaten dena afizioa duelako da.

- Bitxikeri edo anekdotarik kontatzeko ?

Kazara joan kriston kaliak egin eta izugarrizko barreak egitea askotan gertatu izan zait.

- Zer esan gozenioke ekologisra bati ?

Ekologisten artean ere ehiztariekin bezala gertatzen da. Batzuk ekologistak dira baina beste batzuk izena besterik ez dute. Azken hauei nirekin etortzera gonbidatuko nieke eta ikusi dezatela zer egiten dudan.

MOTZIAN

- Noiz egin dizute azken oparia? Nire urtebetetzean.

- Aktorea bat ? Sofia Loren.

- Medikuarenean egon zinen azken aldia ? Orain dela urte t'erdi.

- Zelako pelikulak guztatzen zaizkizu ? Oestekoak.

- Telebista programa bat ? Dokumentalak.

- Bete bariko amets bat ? Egun berean hiru oilagor botatzea.

- Abeslari bat ? Benito Lertxundi.

- Elgetako lekurik politena ? Plaza.



Elgetan betidanik egon izan da ehizarako afizioa.



M^a
ESTHER

Tel: 76 81 67

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Telatuak

Sukaldeak

Etzurreak

Komunak

Uztango Behekoa Baserria. Tel: 860156

Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46

GOIMENDI AUZOA

- 6 baserri eta berauen zelai maldatsuenak nekazaritzaren alde gogorrena erakusten digute Goimendin. Abeltzantza da bertakoen bizibide nagusia -



Beizuko baserria da hau. 1779ko baserria. Abeltzantzarako joera haundia dago aldapa hauetan. Gainealdean Azulako baserria dago, Martin Elortza gotzaia jaio zen etxea.

Goimendi auzoa Azkonabitza eta Galdaramiñoko muinoen maldetan hedatzen da. 6 baserrik eta santiagoako ermitak osatzen dute bertako bizitza lasaia eta era berean neketsua. Auzo honetan jaio zen Martin Elortza Gotzaia, Azulako baserrian hain zuzen ere. Gaur egun Azulan egiten den gazta oso estimatua da.

Azkonabitzak, azkonarren habileku izan dela dirudi, izenak ere horixe esan nahi baitu. Hala ere, gaur egun azkonarrak ikustea ia ezinezkoa bada ere, bertako lasitasunak eta ibilbide paregabeak, jendea hurbilarazten dute inguruez gozatzerara. Behien marruak eta ardi kanpaien hotsa da entzungo den musika. Gaur egun paisaia apuritzen duen gauza bakarra, duela bi urte eraikitako antena da.

Azula eta Martin Elortza Gotzaia

Auzokide gutxi ditu Azkonabitzako inguruak. Bi baserri: Azula eta Beizu. Norbaitek bidea ezagutzen ez badu ere, galbiderik ez duen bidea da: Egoarbitzako

gainera iritxi aurretik, eskubira dagoen bideak eramango gaitu baserrietara. Bidea bitan banatzen da aurrerago, ezkererantz hartuz gero Azulara iritxiko gara eta aurrera jarraituz gero Beizura.

Azulan jaio zen Martin Elortza gotzaia 1899ko abenduaren 30ean. Egunero joaten zen haur zelarik oinez, esnea Eibarren banatzera eta ondoren herriko eskolara joaten zen. Pasiotarren artean sartu zen eta 1953an gotzai izendatu zuten. 67 urte bete zituen egun berean hil zen Liman 1966an.

Azulan, ardiak bizi dira orain. Bertan martxo inguruan gazta egiten dute eta preziatua da Elgetan zein hemendik kanpora. Negura begira ekarri dute lastoa ardiek zer jan eta gaua non pasa izan dezaten. 1775ean eraikitako baserria da eta bertako hormek,

gerora gizon ospetsua izango zen Gotzai bat hazten ikusi zuten. Martin Elortza 1899ko abenduaren 30ean jaio zen. 12 urte beranduago gabiriako pasiotarren artean sartu zen. Familiakoek beti esan dute, bere haurtzaroa garai haietan oso gogorra izan zela, lan asko baitzegoen baserrian. Martinek egunero oinez esnea eramaten zuen Eibarre- eta horren ondoren herriko eskolara joaten zen. 1924. urtean, apaiz egin zen, munduan zehar apaiz lanetan aritu zen eta pasiotarren artean, "erlijioso jator, eliz artzai sutsu" bezala kontsideraturik zegoen. 1953an Gotzai izendatua izan zen. 1966ko abenduaren 30ean 67 urte betetzen zituen egunean, "santu ospetan hil zen Liman" pasiotarren idatzietan agertzen den bezala.

Beizuko mahats moskatela

1779ko baserria da eta jatorrizko izena Beizua da. Familia oraindik ere bertan bizi da. Zelai maldatsuetan abeltzantzarako joera nabarmena dago eta animalia ederrak hazten direla ezingo dugu ukatu. Bizitza ez da erraza baserrietan eta lur horietan neketsua goa gertatzen da. Juan Astolaren esanetan, Beizuko jabea bera, "azken elurteekin, bizpahiru egun egon ginin inora joan ezinik". Elurtea ikaragarria izan zen eta honek bota zituen zuhaitz kopurua ere haundia. Dena den berotan egonez gero, janaririk falta gabe eta osasun onean, ez da sartzen presarik".

Baserriaren aurreko aldean ortu eder bat izateaz gain, intxaur zuhaitz haundi bat dago eta etxeko hornei itsatsita moskatela. Ortua- ren inguru gutzia hartzen du mahastiak. Abuztuko txingorrek eta harriak kalte haundia eragin omen dute fruitu arboletan. "Intxaur asko jausi dira eta horiek ustelduta daude, sagarrak ere ber-

din; mahatsak ere mailatu gogorak ditu, baina hala ere asko dago. Etxean berriz teilak apurtu ziren, beldurgarria izan zen”.

Beizuko baserrian aipagarria da egurrezko ataria. Etxearen kanpoko aldetik gehituta du egurrez eginiko ganbara antzeko bat, goiko partean leiho eta guzti. Lanean utzi genituen bertakoak, autoentzako toki berri bat eraikitzen baitzebiltzan.

Arraoz-Haran hotz

Galdaramino antena haundi bat duen bigarren mendia da, eta honen magalean daude 4 baserriak: Arraoz, Azurtza(2) eta Arraoz aurre. Bi auzoak lotuta daude mendi bidez, baina autoz hurbiltzeko Eibarrerantzko bidea hartu behar da eta Karabitxako gaina pasa eta beherantzko bidean, eskubira aurkituko dugun lehen errepidetik joan gaitzke.

Errepidea zuzen hartuz gero, aurkituko dugun lehen baserria Arraozekoa da. Baserri ikaragarria da, alde bat erorita badago ere. Eta ikaragarriak dira zelaiak, behiak eta 125 ardjiko artaldea lasai asko mugitzen badira ere. Baserriaren gaineko aldean irazko zelai bat. Metro askotan luzatzen zen alfombra gorritzka, udazkeneko kolorez tintatua. Hainbeste animalintzako “ohea” egiteko ezinbesteko materiala da iria. Arraozen ondoan baserri berri bat eraikita eta bertakoak makineria berriena erabiltzeaz gain behi haztegi bat dute.

Ibilbide honetan, mendiz etorri ginenean, neguko haizetek botatako zuhaitz eta pinadiak ikusi genituen. Bidea ostopatzen dute ehundaka urte dituzten pagoek.

Plaentziko bidea

Bidea beherantza hasiko zaigu orain. Sagar erreka ondo-



Arraozko baserrian artalde haundi bat dute eta makineria berria zelai hoietan lan egiteko. Historian zehar baserri aberatsa dela esan da.

tik, Azurtzara iritxiko gara. Errepidea, bi baserrien artean pasatzen da. Azurtzak, asun asko dagoen tokia esan nahi badu ere, guk lorez beteta aurkitu genuen, eta pagadi eder batekin babesturik auzoko ermita bakarra, Santiagoren omenez eraikia. Bi baserri hauen erreferentziko lehen data 1770ekoa da, Bernardo Egotxeagak, Maria Gisa-

solari saldua 750 dukat-en trukean.

Aipagarria da, auzokoek eta batik bat Azurtzakoek, ermita bera eta honen inguruak nola zaintzen dituzten ikustea. Teilatua eta kanpokoak ederki zainduta daude. Bolatokia ere badu, Santiago eguna ospatzeko eta ermitaren aurreko aldean, plaza antzeko bat dago eserleku eta guzti.

Pasadizu xeblebre bat

Elgetako askok ezagutzen dute kontu bat da. Ez dakienak ikasi beza eta gero kontatu, ahazterik ez du merezi eta.

Eibarretik Elgetara etorri nahi zuen erdaldun batek honela galdetu zion Euskaldun bati:

- Oye ¿ cómo se va de aquí a Elgeta? - Erdaldunak

- Primero subir cuesta, luego todo entre huesos y luego cuatro cuatro hasta Elgeta- erantzun zion euskaldunak.

Hau da, honekin zera esan nahi zen, lehenengo aldapa igo gero Azurtzara helduko zela eta handik lau-lau Elgetara.



Santiagoko ermita da hau, Azurtzan dago eta pagadi eder baten azpian. Oso txukun eta garbi daude inguruak eta baseliza bera ere bai.

"DOMUSANTU"

Urteko sasoi guztiak izaten dabe eragin berezi bat gizonen gain, eta udazkenak oso aundixa eta nabarmena dauka izan be.

Garai honetan pasatzen dira txori mota desberdin eta ugariak alkarrekin talde ederrak sortuz, bizitzen jarraitzeko, toki egoki baten bila.

Inguruko zelai eta landareek aldatzen dabe eren itxura guztia; hainbat denporan berde ta indartsu egon diran orrixak, egunetik egunera, mudatzen dabe eren koloria, esan leike izadi guztia erropaz aldatzen doiala eta, poliki-poliki, gertatuz agertzen da, neguko lozoru illuntasunian, sartzeko.

Ego haixiak lañuak bultzitzen dittu, alde batetik beztera, eta illunabarrian, eguzki jaunak, gorri-gorri, ixōtzen dau zeru guztia bere suakin.

Honek sasoiak eragin haundixa eukitzen dau gizakumian. Pentsatzeko une bat sortzen da norberaren barruan, eta, konturatu ez arren, oso ondo zer gertatzen dan gure sentimentuen txokuan, halako melankolixa bat, tristura ez-triste bat, oroimen aro bat, nostalgixa apur bat zabaltzen da espirituan barrenian.

Udako jai girua amaittu ondoren, aurreko kontuak gogoratzeko garai bat dator. Nork daki zer lortu dan eta zer geldittu dan bidian... Nork daki berriro eta noiz ikusiko dittugun begi urdin ederrak... Nork daki nun eta zelan, zer

eta noiz...

Udazkeneko jai berezi bat aukeratu bihar baneuke, nik "Domusantu" eguna aukeratuko nuke. Eta esango dotzuet zergaittik.

Elixiak Santu Guztien eguna ospatzen dau, jai garrantzitsua benetan; halako egun alai bat izan bihar zan, baña nere ustez, Euskal Errixan, hurrengo eguneko ospakizunak jaten dotza bere sentzua. Hurrengo eguna da Elixiak illak gogoratzeko jarritakua, "Kandelarixa" eguna, baña guk "Domusantu" egunian beti ohittu izan dogu gure hilloboxak konpondu, lora batzuk eskeini eta inguruak txukunduaz, Kanposantua bisitatzia.

Gure akorduan, Elgetan ikusten giñuzen horegunian, kanpuan bizi ziran zenbait lagun edo ezagun. San Rokeko zelai inguruan agurtzen ziran urtian, edo urtetan, ikusi bako senide edo lagunak. Beti etaratzen zan aspaldiko konturen bat, baten-baten oroimen bat. Norbaitengaittik galderak, edo bateon-baten barrixak. Dana oroime-neko itturria.

Esaten dabenez, euskaldunok betidanik eduki dogu gure aurretikuendako, gure ildakuendako, errespeto eta begirune haundixa. Kristautasunean aurretik, bakotzak izaten eban toki berezi bat ildakuendako etxe inguru edo auzuan. Sarrittan argi bat jarritta gogorapenaren eredu. Gero, elixan bertan hillobiratzen ziran hildakuen, eta bakoitzak toki bat izaten

eban elixan, "Sepultura". Bertara eruan ziran argizariola eta kandelak, bertan jartzen zan "mantia", ta ohittura hau oso ezaguna ta indartsua izan da ointzurarte. Kanposantu herritarrak sortu ziranian, (gehixen bat osasun bidiari jarraitzeko) elixetan geldittu ziran bakoitzaren tokixak, eta Elgetako elixan (beste batzuetan bezala) oin-diokan ikusi leikez zenbaki batzuk lurrian bakoitzan "lurra" markatzen.

Domusantu egunian, urri-ñeko basarrietako jentia kalia gelditzen zan, batezbe egualdi txarra eitten baeban; hurrengo goixian, "kandelarixa" egunez, mezia entzūn eta baserrira biurtzeko. Uste dot, hor egunian abade bakoitzak hiru meza emoten zittuala, eta eten barik "Responsuak" botatzen egoten ziran abadiak. Isopuakin txiprintin batzuk bota eta etxeuak dirua botatzen eban "bonetara". Purgatorixuari uztu dexentia emongo jakon egun horretan orraitio!

Domusantu egunez ez zan erromerixarik izaten, elizkizunetara ta Kanposantura juateko izango zan. Orduko neska-mutillek, beste modu baten eguna ospatzeko, gaztañerre janak antolatzen zittuen, eta kontu onek emoten zotzen "Domusantu" egunari bere saltza berezixa.

Antolatuko ete juau geuk berrido "gaztañerre" jan bat ba?

Jon Arantzeta

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA



Argazkia: Antonio Iturricastillo

Eskolako bidaiak


Konturatuko zareten moduan, 1948ko uztailaren 17an eskolako adin guztietako neskek Arantzazura eginiko bueltatxoaren erretratua dugu.

Neskek bakarrik agertzearen arrazoia ez dakigu zein den. Orduan ere eskolan mutilak ere baziren eskola mistoa baitzen.

Dakigun informazio apurra eman eta gero hona hemen bertakoen izenak.

Ezkerretik eskuinera eta goitik behera ageri dira ordenaturik erretratukoak:

Karmele (Zaharra), **Maria Elorriaga** (Abadekua), **Isabel Astola** (Beizu), **Miren Villar** (Egotxeaga), **Begoña Loidi** (Aranburu), **Anjelita Atxukarro**, **Maria Luisa** (Sagastitxu), **Damiana Askasibar**, **Mari Tere Oianguren** (Agarrekua), **Mari Tere Telleria** (Amerikania), **Elena Arantzeta** (Panaderixakua), **Irene Gorrotxategi** (Miraballeskua), **Eujeni Bolinaga** (Albistei), **Arantxa Askasibar** (Jalotza), **Karmen Irazabal** (Kalen), **Mari Karmen Egizabal** (Sagastitxu), **Rosario Arotzena** (Beketxe), **Pantxika Arratibel** (Don Jose Antonio abadiaren arrebia), **Kontsesi Askasibar** ("Concepción" Jalotza), **Pakita Olosolo** (Eibartarra), **Anparo Iekamea**, **Balbina Garai** (Aguazillan ama), **Miren Ormaetxea** (Oilakortakua), **Olgita Gisazola** (Eibartarra), **Karme**le (Gaztia), **Jesusa Gaztelu**, **Amelia Azkarate**, **Juanita Sarasketa** (Kantoikua), **Ama Venigna**, **Mertxe Mendikute** (Urrejalei), **Karmen Iekamea**, **Maritxu Ejea**, **Doña Manuela andereinoa**, **Goita Arizaga**, **Beneita Bergaretxe** (Zezia), **Maria Jose Arizaga**, **Luisa Erostarbe** (Berraondokua), **Lidia Mandiola** (Ur bedeinkatukua), **Irene Bergaretxe**, **Edurne Elorriaga** (San Juan), **Lide Telleria** (Sestokua), **Belen Garate** (Eibartarra), **Mari Tere Irazabal** (Zeleta), **Ibone Bolinaga** (Albistei), **Karmen Arotzena** (Angiozarkua), **Pili Garate**, **Mari Karmen Ormazabal** (Arantzetako Benitaren iloba).



Goibekokale aldizkariko loteria salgai

21.528 zenbakia

Taberna eta
dendetan daukazu.
Ez galdu aukera.



GAZTE ASANBLADAREN AZAROKO EGITARUA

- AZAROAK 8 → GAZTAJNERRE EGUNA.
barikua Iluntzeko 7etan
- AZAROAK 15 → JNTSUMJSJOARJ buruzko hitzaldia. MOC-KEM taldeko
barikua partaideekin. Gaueko 9: 30etan
- AZAROAK 17 → ANTZERKJA, TRANSITO TEATRO
domeka taldearekin. NAGUSIENDA KO. Iluntzeko 6etan
- AZAROAK 22 → DJAPOSJTJBA EMANALDJA. Gaia: NEGU KO SOLSTJZJOA
barikua EUSKAL-HERRJAN Gaueko 9: 30etan
- AZAROAK 29 → KONTZERTUA HARDEZAN eta DANTZUT taldeekin
barikua Gaueko 10etan

HJLE GUZTJAN ZEHAR DANTZA JKASTAROA
HURRENGO HILAREN 1EAN BERRIZ ERE GOIBEKOKALE
ALDIZKARIA IZANGO DUZU ESKUTARTEAN